

ZER NON NORK

Aurkezpena	03
Ihintza 100	
Joxe Erzibengoa, IHINTZA ALDIZKARIAREN EHUNGARREN ALEA	04
Hezitzaileak mintzo	
Felix Ezama, HARREMANAK ELKARTEAN	07
Poemak	
Warsan Shire, ETXEA	08
Gogoetak	
Pello Esnal, TXORIA, ARIADNAREN HARIA	10
Jose Mari Artolain, HAINBAT BURUTAZIO	12
Joxe Agustin Arrieta, ZAHARTZEN JAKITEA	13
Euskal kultura	
Martin Jose Lasas, LAZKAOKO BENEDITARREN DOKUMENTAZIO-GUNEA	15
Kontu kontari	
Jon Lezamiz, AUTOBUSE TAKO BERINAPEAK	17
Joxe Erzibengoa, A DREAM	19
Ikasleen txokoa	
La Salle Legazpi, BERTSO PAPERAK	20
Ane Ruiz, OROITZAPEN AHAZTEZINA	22
Uxue Garzia, 1937ko apirilaren 26a	23
La Salle Zarautz, ENGRAXI	24
Ihintza 100	
Juan Luis Urmeneta, "ESPERANTZARI"	27

Argitalpen honen laguntzaileak:



IHINTZA – Salletarren aldizkaria. 1998. urtean sortua
Zuzendaritza eta erredakzioa: La Salle, 851 postakutxa, 20.080 – Donostia
L.G.: SS 485/84 ISSN: 1135-3945
Gertu inprimategia

Irakurle adiskide hori:

Ireki berria duzu Ihintza salletar aldizkariaren 100. zenbakia. Pozgarria benetan 1984ko martxoan lehenengo aldiz argia ikusi zuen aldizkaria, 34 urte ondoren, 100. zenbakira ailegatu izana. Zoriontzekoak urte guzti hauetan aldizkaria kudeatu izan duten salletar saiatuak eta bereziki idazle andana, zenbakiz zenbaki bere ekarpena eskaini duena.

1983ko udan, salletarren ohizko ikastaldi batean planteatu zen aldizkari bat euskara hutsean argitaratzea, salletarren artean euskara zabaltzeko asmoz eta euskaraz idazteko ohitura suspertzeko gure ikastetxeen inguruko Anai, irakasle eta ikasleen artean.

Aldizkariaren izena lehiaketa baten bidez erabaki zen. Eta Anai Dunixi Arzelus zenak, bertso batean proposatutako Ihintza aukeratu zen. Honela zioen Dunixiren bertsoak:

<i>Herriaren arnasa</i>	<i>Euskadi orlegiko</i>
<i>da bere hizkuntza.</i>	<i>euskaldunen hitza.</i>
<i>Bizi nahi diagu,</i>	<i>Zu zara Salletarrok</i>
<i>euskaraz hik mintza.</i>	<i>zuzpertzeko ihintza.</i>

Eta halaxe 0 zenbakidun alea atera zen aipatutako martxoan.

Eta oraingo hau 100 zenbakiduna da. Hara, ale honetako edukien iruzkin laburra.

Ihintza 100. zenbakira iritsi izana hizpide duen itaunketarekin ematen diogu hasiera aldizkariari eta amaitzeko ere gai berari heldu dion ekarpena jarri dugu. Idazle biak Ihintzaren 0 zenbakian idatzi zutenetakoak dira. Ale honetan badira 100. zenbakia izateari buruzko beste balioztapenak.

Hezitzaileak mintzo. Elkarte ezberdinen baitako harremani buruzko gogoeta eskaintzen digu idazleak.

Poemak. Hona ekarri dugu errefuxiatu somaliar baten poema eder bezain lazgarria, Lampedusako gurutzearen aurrean Zarautzen irakurri izan zena.

Gogoetak. Sail honetan hiru ekarpen datoz: Leireko elezaharrari buruzko hirugarrena, idazlearen hainbat burutazio eta zahartzaroari buruzkoak.

Euskal kultura. Lazkaoko beneditarren dokumentazio-gune eta liburutegiko altxorak azaltzen dizkigu idazleak, Lazkaora egindako bisitan ikusi eta entzundakoak, alegia.

Kontu kontari. Madrileko lagunak jarraitzen du bere kontakizun zehatzarekin, iruzkinez betea, eta, besteak, amestutako kontakizuna eskaintzen digu.

Ikasleen txokoa. 100. zenbaki honetan ezin ba falta txoko hau. Batetik ikasmaila ezberdinetako ikasleen olerki eta bertsoak, bestetik bi kontakizun, horietako bat ikastetxeko ikastalde ezberdinen artean burutua, polita benetan.

100. zenbaki honen ondoren Ihintza aldizkariak jarraitu nahi izango du salletarren munduan euskaraz idazteko zaletasuna suspertzen. Ateak zabalik jarraituko du. Gerta dakigula suspertzaile!



Jose Manuel Agirrezabalaga

IHINTZA ALDIZKARIAREN EHUNGARREN ALEA

Joxe ERZIBENGOA

Ihintza aldizkariaren ehungarren alea dela-eta zerbait berezia egitea otu zait. Berezia diot ez delako ohizkoa aldizkarian: itaunketa estiloari buruz ari naiz. Itaunketa hau Azitain Ikastetxeko ikasle eta irakasle batzuei eskaini diet. Beraz, batetik, lerro hauen ondoren itaunak daude eta, bestetik, jarraian jaso ditudan erantzunak. Agian, ariketa xume honek nondik nora gabiltzan gure Ihintza-rekin eta nondik nora ibili beharko genukeen emango digu jakitera. Esan gabe doa denei eskerrak eman behar dizkiedala erakutsi duten prestutasunagatik.

Galderak:

- 1.- *IHINTZA euskal aldizkariaren 100garren alea ateratzear dago. Ezagutzen al duzu aldizkari hau? Nola ezagutu duzu?*
- 2.- *EUSKAL HERRIAN argitaratzen den aldizkaria da. Gure Elkarte eta Ikastetxeetan zabaltzen da, beste hainbat leku eta pertsonarengana ere iristen da. Egokia iruditzen al zaizu? Zergatik bai ala zergatik ez?*
- 3.- *EHUNGARREN aleak argia ikusiko du ikasturte honetan. Aurrera begira nolakoa izan beharko lukeela uste duzu kontuan izanda ikasleek, helduek eta aditu batzuek irakurtzen eta begiratzen dutela?*
- 4.- *IDATZI al duzu inoiz aldizkari honetan? Bai? Zein gai erabili duzu? Ez? Zer dela eta?*
- 5.- *IHINTZAK ez duen atalen bat erantsiko al zenioke? Zein? Zergatik? Nola zabalduko zenuke aldizkari honekiko zaletasuna gure eskoletako ikasle eta irakasleen artean? Ekimenen bat?*

*Milesker galderei emandako erantzunengatik.
Egizu handia gure aldizkari txikia!*



Erantzunak

Ainara Landa (Ikaslea)

1.- Bai, ezagutzen dut. LH 6. mailan Ipurterre ipuin lehiaketa irabazi nuen eta sari banaketan Joxe gerturatu zitzaidan. Hark Ihintzari buruzko azalpen labur bat eman zidan eta idatzitako ipuina aldizkarian jarri nahi zuela esan zidan. Handik gutxira idazlanak egiteko eskatu zidan.

2.- Interesgarria iruditzen zait hainbat pertsona ezberdinek idatzitako zerbait irakurtzea. Azken finean, nik uste dut nerabe baten eta heldu baten bitzta ikusteko perspektiba ezberdina dela. Ihintza ez da beste aldizkariak bezalakoa. Oro har, aldizkarietan ikuspuntu ezberdin gutxi daude.

3.- Interesgarria iruditzen zait poesia-atal bat izatea. Gaur egun, badira poesia idazten duten pertsona asko, eta uste dut literatura-mota hori galtzen ari dela.

4.- Bai. laz idazten hasi nintzen. Lehenengo idazlanak nire bizitzari buruzko benetako kontakizunak ziren. Gero erabaki nuen ipuinak asmatzen hastea. Ipuin horietan gaurko egoera ikus zitekeen. Idazki guztietan zerbait ikas daitekeela uste dut edo norberak hausnarketa txiki bat egin dezakeela. Hala izan zedin saiatzen nintzen, bederen.

5.- Beharbada, hitzaldiren bat emateak Ihintza aldizkaria ezagutaraziko luke. Egia esatera, ez dakit ongi zer egin daitekeen aldizkari honekiko zale-tasuna zabaltzeko.

Joxe Erzibengoa (Anaia)

1.- Hasteko zorionak Ihintza aldizkaria egiten duzuen guztiei. Ongi ezagutzen dut aldizkari hau. Nola ezagutu dudan? Sortzaileetako bat naiz. Bilboko salletar ikastetxean uda bateko kurtsu batean erabaki genuen aldizkaria sortzea euskara zabaltzeko eta idazten ikasteko.

2.- Aldizkari hau, bere txikitasunean, egokia iruditzen zait. Sortzea erabaki genuenean proposatu ziren helburuak duintasunez betetzen ditu. Nire uste apalean aldizkariaren hasierako euskara eta oraingoa ezberdina da. Ziurtasun handiz esango nuke oraingo euskara duinagoa dela, euskara euskaragoa, nolabait esateko. Ikusi besterik ez dago zeintzuek idazten duten orain: ikasleek eta irakasleek, idazleek eta irakurleek. Beraz, egokia da gure aldizkaria.

3.- Orain arte egiten ari izan garen aldizkaria duina dela esan dut arestian, beraz, aurrerantzean ere tamaina honetako aldizkaria egiten jarraitzea gustatuko litzaidake. Hobetzekotan baina kontuan izanda salletar aldizkaria dela gure eskoletan dauden andereño eta irakasle gehiagoren idazlanak gustura irakurriko nituzke eta ez ikasleenak soilik. Badakit kolorea eskatzea gehiegixko litzatekeela, baina zergatik ez ausartu urrats bat edo beste emanetz?

4.- Bai, noski. Askotan idatzi dut Ihintzan. Sortzaileetako bat naizela esan dut aurreko erantzun batean. Nire buruarekin eta Ohintzarekin konpromiso serioa daukat hartua: ale guztietan zerbait idatziko dudala. Gai anitzak erabili izan ditut, baina mendiko idazlanak eta adiskideekiko gogoetak izan dira gai begikoenak. Gogoan dut hasiera batean gai eztabaidagarriak ere erabiltzen nituela, baina garai haiek joan ziren eta orain bizitzari beste kriterio batzuekin begiratzen diot.



5.- Gauza jakina da gure zonaldean arduradun asko daudela. Ongi ikusiko nuke Ihintza argitaratzen saiatzen direnak gure eskoletatik pasatzea eta irakasleak, ikasleak eta langileak oro har aurrean izanik bizpahiru hitz botatzea eta idaztera animatzea, aldizkaria zer den, norentzat eta zertarako den esateaz bat. Dena beharko da luzaroan irauteko.

Sorkunde Lapeira (Andereñoa)

- 1.- Bai, eskolan ezagutu dut, duela urte batzuk.
- 2.- Jakina egokia dela. Halako ekimenak sortzea primeran dago. Edozeinek idazteko aukera, paregabea dela iruditzen zait eta eskolan (ikasgelan) zabaldu beharko genuke.
- 3.- Dagoen moduan antolatuta ongi deritzot, atalak eta hori...
- 4.- Ez, ez naiz hain ausarta.
- 5.- Azaldu gelaz gela. Oraindik ez dutela ezagutzen uste dut.

Miren Ferrero (Ikaslea)

Bai, nire idazlan bat aleetako batean atera zenean ezagutu nuen. Hala ere, ez nuen fisikoki ezagutu ez baitzidaten eman.

Amaia Ecenarro (Irakaslea)

- 1.- Bai. Lankide bati esker.
- 2.- Bai. Euskaraz egina delako eta gaiak interesgarriak.
- 3.- Formatu modernoagoa.
- 4.- Bai. Behin. Idaztearen ekintza edo jarduerari buruzkoa.
- 5.- Aurrekontua izan beharko litzateke gogoan. Ikasle, irakasle guztiengana heltzeko, agian, formatu digitala aukera bat izan daiteke, Sallenet-en, adibidez.

Joseba Agirrezabalaga (Irakaslea)

1.- Bai ezagutzen dut. Ikastetxean lanean hasi nintzenean, aldizka ikusten nuen irakasle gelan, eta anai Joxek eman zidan beraren berri.

2.- Bai, egokia iruditzen zait askori idazteko aukera ematen diolako, norberaren iritzien, egitasmoen, gertakizunen berri emateko aukera.


3.- Bere horretan ondo ikusten dut, baina agian, zabalkunde handiagoa emango nioke, garai berrietara egokituz, online zabalduz, sare sozialak aprobetxatuz.

4.- Bai, idatzi nuen, beste irakaskide batekin. Ikasle batzuekin egindako bidaiaz idatzi genuen.

5.- 3. galderan aipatu ditut zenbait puntu. Horiez gain, ondo ikusten dut.

.....

Ihintza zurixka batek argi dezala gure bidea, euskararen bidea, gure euskaraldia etengabea izan dadin gure artean, gure eskoletako ikasleen eta irakasleen artean, gurasoen artean eta salletar espiritua dutenen bihotz-bihotzetan.



HARREMANAK ELKARTEETAN

Felix EZAMA

“GureEskola.com” La Salle – Legazpiko aldizkari digitala da eta edonork ikus dezake ikastetxeko WEB orrian (*lasallezumarraga.eus*). Aldizkariaren aurreko alean “Anaia” hitz magikoaren inguruko gogoeta egin nuen, bere zentzu zabalera barreiatuz. Hala ere, errealitate horrek bizirik iraun dezan, aproposa den gune bat behar du non heldu, hazi eta konprometi daitekeen. Harreman osasuntsuzko Elkarte bat behar du. Eta horretaz doa hausnarketa labur hau.

Harremana, pertsonaren oxigenoa, habitat edo humusa da. Harremanean nire burua ematen dut, ni naizena ematen dut; eta, era berean, jasotzen dut; partaide izatearen sentimendua dago: fio naiz, trukean ezer eskatu gabe nire burua ematen dut. Harreman honek askatasuna du oinarri: nik nahi dudalako, ez behartzen nautelako. Adiskidetasuna sortzen duen askatasun uhin bat da. Zentzu honetan adiskidetasunak definitzen nau eta pertsona bezala ontzen nau. “Zu” hitzak “ni” izaten laguntzen dit. Zu gabe nia galdu egiten da. Pertsonak bere funtsa, bere aroma, bere xarma galtzen du; berekoia bilakatzen da eta pertsona bezala atrofiatu egiten da. Ezbeharrak sortarazten du eta bizitzak jada ez dauka zentzurik. Hortaz, zertarako bizirik jarraitu?

Harreman hori esparru desberdinetan bizi daiteke: familian, eskolan, lagunartean, aisialdian, parrokan,... Harreman esparru hauei Elkarte deritze. Elkarte orok harremana eskatzen du, ez bakarrik hainbat pertsonaz osatuta dagoelako, gure asmoez harantzago barne dinamikotasun bat sortzen duelako ere. Elkarte honetan pertsona gustura sentitzen da, bere eguneroko bizitzari zentzua aurkitzen dion lekua da. Elkarteak aintzat hartzen nau; sentitzen dut baloratzen nautela, maite nautela eta misio batera bultzatzen nau, nire bokazioa garatzera bultzatzen nau. Harreman honetan dagoen doakotasuna gure desioez harantzago doan ur emari fresko eta gardena da. Doakotasuna harreman osasuntsuen iturburuak isurarazten dituen ur-bilatzalea da.

Familia Elkarte gisa. Familiak lehenengo “elkartea” izan beharko luke, non harreman guztiak doakoak diren, bakoitzak egiten duenaren edo bakoitzak etxetik kanpo daukagun iruditik harantzago dagoena. Familian pertsona bakoitzak daukagun amets bikainenek islatuta egon beharko lukete. Zentzu honetan Famili Elkarte giza harremanen laborategi antzeko bat da.

Adiskidetasuna. Giza harremanen forma perfektuena da. Izan ere, adiskidetasuna da gizakion arteko agindurik, betebeharririk, debekurik gabeko harreman bakarra. Adiskidetasunak bere oinarria, funtsa, beregan dauka. Horregatik guztiz askea da. Lagun bat, askatasun osoz berak nahi duelako, maite nauen edo estimatzen nauen pertsona bat da. Gure lagunak onenak gure gurasoek, anaiek, arrebek izan beharko lukete; bikotekideek elkarren artean, gurasoek beraien seme-alabekin. Dietrich Bonhoeffer-ek lagun bati ondorengo idatzi zion Bigarren Mundu Gerran naziek erail baino lehenago: “Askatasunaren esparruan adiskidetasuna ondasunik preziatuena eta arraroena dela uste dut”.

La Salleko Joan Bautistaren intuizio handia. “Elkarrekin eta asoziazioz” lelopean gaur egun Salletar Elkarte deritzoguna sortu zuen. Konpromiso pertsonal desberdinak dituzten pertsonen osatutako elkarteak dira: Anaienak, Sekularrenak, Anaia eta Sekularrenak elkarrekin,... Salletar Elkarte desberdinak. Salletar Eskola ere Elkarte bat da. Azken finean, Salletar Elkarteak dinamizaturiko Eskola Elkarte. Horrela, pertsona desberdinen arteko harremanak (zuzendaritza, irakasleak, gurasoak, administrariak, begiraleak, garbiketakoak...) ekintza hezgarriaren efektu positiboak ugaritzen ditu.

Jesus, harreman soilaz harantzago. Nazareth-eko Jesusek maitatzen, sendatzen, predikatzen duenean, doan egiten du. Horregatik jende xumea gerturatzen zaio, eta daukaten guztia ematen diote, baita beraien gaixotasunak, akatsak eta bekatuak ere, eta Jesusek bedeinkatzen ditu, sendatzen, bizitza berri bat ematen die. Doako adiskidetasunetik eta ematetik sortzen den bizitza berria. Giza harreman gorena da.



ETXEA

Warsan Shire

Martxoaren 21ean Lampedusako gurutzearen inguruko parrokiako ekitaldian parte hartu zuten Zarauzko La Salleko zenbait irakaslek eta ikaslek ere euren marrazkiekin. Eta eskolan goizeko gogoetan ere landu genuen errefuxiatuen gaia.

*Parrokiako ekitaldian **Warsan Shire** errefuxiatu somaliarraren ondoren doan poema eder bezain lazgarria irakurri zen (Itzultzailea: Garazi Ugalde Pikabea).*



inork ez du etxea uzten
etxea marrazo-aho izan ezean
mugarantz egiten duzu korri soilik
hiri osoa ere korrika ikusten duzunean

bizilagunak zu baino azkarrago korrika
eztarrietan odoltsu arnasa
eskolara zurekin joan zen mutila
lata fabrika zaharraren atzean mozolo musu eman
zizuna
gorputza baino handiagoko fusila eskuan
etxea uzten duzu soilik
etxeak geratzen uzten ez dizunean

inork ez du etxea uzten etxea jarraika izan ezean
oinpean sua
odol beroa sabelean
inoiz ez zenuen halakorik egiterik pentsatu
erre zizun arte labana-ahoak lepoa
mehatxuz
eta orduan ere himnoari eutsi zenion
ahopean
pasaportea aireportuko komunetan negar-zotinka
puskatzeak
paper ahokadaka bakoitzak baino ez zuen argi utzi
ez zenuela atzera egingo

ulertu behar duzu
inork ez dituela seme-alabak ontziratzen
ura lurra baino seguruagoa izan ezean
inork ez ditu esku-ahurrak erretzen
trenen azpialdean
bagoipean
inork ez ditu egunak eta gauak ematen kamioi
baten urdailean
egunkariak janez, egindako kilometroak
bidaia baino zerbait gehiago izan ezean
inor ez da hesi azpitik arrastaka igarotzen
inork ez du jipoirik
errukirik nahi

inork ez ditu errefuxiatu-eremuak
edo gorputza minberaturik uzten duten
arroparik gabeko miaketak hautatzen
edo espetxea,
seguruagoa delako espetxea
suzko hiri bat baino
eta espetxe-zaindari bat
gauean
hobe delako zure aitaren eiteko
kamiokada bat gizon baino
inork ezingo luke jasan
inork ezingo luke pairatu
inoren larrua ez litzateke hain sendo

zoazte-etxera
 beltzak
 errefuxiatuak
 immigrante zikinak
 asilo-eskatzaileak
 gure herrialdea xurgatzen ari zaretenak
 eskuak kanpoan dituzten beltzak
 usain arraroa dute
 basatia
 beren herrialdeak hondatu eta orain
 geureak hondatu nahi dituzte
 nola erortzen ote zaizkizue hitzak
 begirada zikinak
 bizkarrean behera
 akaso kolpea leunagoa delako
 gorputz-adar erauzi bat baino

edo samurrago direlako hitzak
 zure hankartean
 hamalau gizon baino
 edo errazagoak irensten
 irainak
 zaborra baino
 hezurak baino
 zure haur gorputz
 zatikatua baino.

etxera joan nahi dut,
 baina etxea marrazo-ahoa da
 etxea arma baten kanoia da
 eta inork ez luke etxea utziko
 etxeak kostaraino jarraitu ezean
 etxeak esan ezean
 azkartu hankak
 utzi atzean arropak
 zoaz arrastaka desertuan
 igaro ozeanoak
 ito zaitez
 salbatu
 izan gose
 ibili eskean
 ahaztu harrotasuna
 kontuzkoago zaizu bizirautea

inork ez du etxea uzten etxea belarrian ahots
 izerditu izan artean
 esanez:
 zoaz,
 zoaz orain nigandik urrun
 ez dakit zer bihurtu naizen
 baina badakit seguruago zaudela
 hemen baino beste inon

Jatorrizkoa interneten: <http://www.revistafogal.com/2016/03/15/warsan-shire-dos-poemas/>



TXORIA, ARIADNAREN HARIA

Pello ESNAL

Birila abadearen elezaharra aztertzen hasi ginen 98. alean, “Leireko elezaharra” lantxoan. Azterketa horretan jarraitu genuen 99.ean, “Abadea bere labirintoan” izenekoan. Hirugarren honetarako utzi genuen Ariadnaren hariarena: abadeak non eta nola aurkitu zuen labirintoaren irteera.

Hiru atal bereiz ditzakegu elezahar honetan ere, ohiko kontakizunetan bezala: planteamendua, korapiloa eta amaiera edo askaera.

Lehengo atala, aurreko alean aztertu genuen.

Monje zintzoa omen zen Birila abadea. Zenbat aldiz kantatu ote zuen koruan salmo hura: “Mila urte zure aurrean, Jauna, atzo pasa zen eguna bezalakoxea da”? Eta beti galdera bera egiten bere buruari: nola pasa ote daitezke mila urte egun bat bezain azkar? Eta eternitatearen beldur abadea: ez ote zen aspertuko eternitate osoan, eguna joan eta eguna etorri...

Esanguratsuak dira amaierako eten-puntu horiek. Alegia, nahi adina luza daitekeela atala. Halaxe egin da urteen joanean. Laburrago kontatzen du Agirre Asteasukoak, duela berrehun urteko sermoi idatzian.

Davidec canta batean dio: Jauna, mila urte zure aurrean atzo igaro zan eguna bezala dira. Erligioso batec eciñ aditu zuan itz oetan Davidec diona, eta erregutu cion Jaunari, eman ceguiola gauz onen ezagüera.

Eta puntu. Asteasuko erretoreak ez du aipatzen ez beldurrik eta ez asperdurarik. Baina guri ondo etorri

zitzazkigun kontu erantsi horiek, bai abadearen labirintoa hobeto azaltzeko eta bai, aldi berean, gaurko gizakiona egokiago adierazteko ere. Zer egiten dut hemen, eguna joan eta eguna etorri, tarteka asper-asper eginda? Zertan ari naiz lan eta lan, asperduratik ihesi, edo jo batera eta jo bestera, ez lan eta ez jomuga, ihesitik ere ihesi? Zer balio dute diruak eta botereak eta txaloak eta aldizkako arrakastek? Eta, galdera galderaren gain, non hartu arnasa? Nora joan argi, atsedean eta askatasun bila? Non aurkitu, azken batean, labirinto honen ateraino eramango gaituen Ariadnaren haria?

Galdera horiei erantzutera dator, hain zuzen, kontakizunaren bigarren atal soila.

[Birila] Udaberri egun batez, atsedean hartzera irten da Leireko basora. Eta iturritxo baten ondora iritsi. Han zegoela, txoritxo bat kantari.

–Bai txorrotxio liluragarria! Musika hoberik ba ote da inon?

Eta, hobeto entzutearren, harri konkorr baten gainean eseri eta begiak itxi zituen. Hura zoramena!

Harridura-markaz amaitzen da atala. Hor ez dago eten-punturik. Ez dago kontu gehiago erantsi beharrik. Esana dago esan beharreko guztia. Askatuta daude korapilo guztiak. Hortxe du abadeak Ariadnaren haria.

Baina, hala ere, jarraitu egiten du kontakizunak. Izan ere, nahiz eta gertatu beharreko guztia gertatu den, oraindik ez dakigu zer gertatu den. Horixe esatera dator hirugarren atala, kontakizuna apainduz eta luzatuz, suspensearen harira.

Txoria isildutakoan, etxerako bidea hartu zuen [abadeak]. Eta basotik irten zenean, abadia oso aldatuta eta handituta ikusi. Zer da hau?

Hurbildu da eta monje batekin topo.

–Nor zaitugu?

–Nor naizen? Hemengo abadea. Paseatzera irten eta etxera natorrena.

–Hori ezin liteke. Hemengo abadea hortxe dago. Oraintxe esango diot etortzeko.

Etorri da abadea, etorri dira gainerako monjeak, eta inork ezagutzen ez Birila gizajoa. Eta denak galdezka nor izan daitekeen basoko monje hura.

Horretan ari zirela, hor joan da monje bat li-



burutegira, monasterio hartako kroniken liburu zaharraren bila. Ekarri du liburua, aztertu dute eta hantxe bila zebiltzana:

–Orain hirurehun urte, Birila izeneko bat izan zen hemengo abade. Basoan galdu eta ez omen zen azaldu gehiago.

Orduan ikusi omen zuten denek zer gertatu zen: hirurehun urte pasa abadeak txoriari entzunez.

Hor amai zitekeen kontakizuna. Argi dago zer gertatu zen basoan: hirurehun urte iraun zuela abadearen zoramenak. Baina zergatik ez are gehiago biribildu, izurra izurtuz?

Eta, elizara joanda, salmo hura hasi kantari, Jainkoari eskerrak emanez: “Mila urte zure aurrean, Jauna, atzo pasa zen eguna bezalakoxea da”.

Orduan, txori bat hegan sartu omen zen elizan, eratzun bat mokoan zekarrela: Birilaren abade-eratzuna. Eta honen behatzean sartu omen zuen.

Eta ahots bat entzun omen zen elizan:

–Txoritxo baten kantua baino hobea ez al da izango milioika aldiz Zeruko Jaunaren edertasuna?

Soilago kontatu zuen Asteasuko erretoreak. Eta are soilago Lizarraga Elkanokoak, Asteasukoaren garai bertsuak. Hiru esalditan eratu zuen kontakizuna bere dotrinan:

Milla úrte nola atzóco egúna iduritu codá án [zeruan]. Onen pensácen dagoláic Mongebát Leiren nola ceiquen éguia izán, atraracizué chori báten cántuac oiangáiec bárna; eta egoncé chsoraturíc; cémbat úrte ustedúze, aditzen? Irueún ta yágo, etzequióla iduritu ordu bát.

Horra hor, hitz gutxitan esanda, zer-nolako gozamina izango duen gorputz berpiztuak zeruan, eternitate osoan, hango hizketak, kantak eta musikak entzunez, egun bat iruditzeraino mila urte.

Hain zuzen, horrexetarako sortu zuen kontakizuna elizgizonen batek, seguruenik XII. mendean eta Europa erdialdean: adibide moduan –*exemplum* gisa– erabiltzeko sermoietan-eta, eternitatea –hain kontzeptu abstraktua– zer den herri xeheak hobeto uler zezan. Eta Europa erdialdetik zabaldu zen, batik bat, Alemaniara eta Frantziara; eta iritsi zen Iberiar penintsulara ere, tokian tokiko pertsonaia ospetsu bat kontakizuneko protagonista bihurtuz –Nafarroan, Birila (Tiermas, 870 – Leire, 950) Leireko abadea–.

Eta horrela –*exemplum* gisa– erabili ohi izan da gutxienez zazpi mendetan. Halaxe erabili zuten Agirre Asteasukoak (1742 – 1823) eta Lizarraga Elkanokoak ere (1748 – 1835), duela bi mende.

Gaur, bizirik dago kontakizuna, elezahar moduan. Eta, xarma ez ezik, egia ere badario. Anakronikoak izango dira lehen eta hirugarren atalak. Baina betiko jakinduria dario bigarrenari, gaurko labirintoaren irteeraren erakusle. Hiru liburu balia ditzakegu jakinduria hori ustiatzeko, nork geure senaren harira: *Biografía del silencio* (Pablo d’Ors), *El silencio creador* (Federico Delclaux) eta *La sabiduría recobrada* (Mónica Cavallé).



HAINBAT BURUTAZIO

Jose Mari ARTOLAIN

Hainbat burutazio dabilkit aspaldi honetan ganbaran bueltaka, desordenan, nahas-mahas, zurrumbilo batean. Haiek txukun eta modu ulergarrian adierazten asmatuko ote dudan honezkero zalantzan, paper zuri baten aurrean, arkatza eskuan, abiatu egingo naiz. Zatika datoz gogoetak, ataletan; beraz, irakurri ere horrelaxe egin daiteke atal batetik bestera jauzika. Saia dadila, ordea, irakurlea artikulu osoari batasuna eman nahi dion haria bilatzen.

1 PALE BLUE DOT (PUNTU URDIN ZURBILA)

1977ko abuztuaren 20an bidali zuten Cañaverl lurmuturretik *Voyager 1* espazio-zunda, gure eguzki-sistemako urrutiko planetak eta parajeak ikertzeko asmoz. 1990eko otsailaren 14an zundak argazki bat atera zion Lurrari 6.000 milioi kilometroko distantziatik, inoiz Lurrari egin zaion argazkirik urrunena¹. Irudiak tanto ñimiño bat bezalakoa erakusten du Lurra, eguzkiaren dirdiraz apenas antzematen den argi puntu bat bezalakoa. Carl Sagan zientzia-dibulgatzaile ospetsuak NASARI egin zion eskaeraren ondorio izan zen ekintza hura. Eguzki-sistemaren mugalderantz zihoala, zunda bere ardatzarekiko birarazi zuten guregana zuzenduz. “Puntu urdin zurbila” jarri zion izen Saganek argazkiari. Honela zioen argazki horrek eragin zion zirrararen inspiraturik idatzi zuen liburuaren hitzaurrean:

Ikuspuntu urrun horretatik, Lurrak ez dirudi interesgarria. Baina guretzat ez da horrela. Errepara iezaiozu berriro. Hemen da hori. Gure etxea da hori. Geu gara hori. Maite izan dituzun, ezagutu dituzun pertsona guztiak, inoiz izan diren gizaki guztiak bertan bizi izan dira (...) hauts-tanto batean zintzilik eguzki-izpi batean.

Baina, Lurra, bere txikian, altxorrik preziatuenaren gordelekua da: bizitza kontzientea, geu gerok, gizakiok. Izan ere, existitu ote liteke ezer unibertsoan, horren berri dakien izakirik ez balego?



2 LAGUNARTEKO AFARIAN

Aurreko paragrafoaren bukaerako galdera bertsua, lagun batek mahai gaineratua dator bigarren atal honetan. Hilean behin edo, elkartu egiten gara mahai baten inguruan, afaria aitzaki, aspaldiko lagunok. Beti izango da aspaldi hartan gertatutako pasadizoren bat, nahiz farregarri nahiz penagarri; baina interesgarriagoak dira gaurkotasuna duten mintzagaiak, edo betikoak direnak. Gai-zerrendarik ez dago, eta iritziak eta esamesak batetik bestera dabilta, zenbat eta afaria aurrerago orduan eta biziago. Halakoren batean, hitzetik hortzera Juanjok: eboluzioak beste bide batetik jo izan balu eta gizakiok sortu izan ez bagina, existitu ote ziren dinosauroak? Edo bestela, litekeena al da hotsa entzulerik ez badago?

¹ Merezi du argazki hori ikustea, IHINTZA aldizkari honetan ezin liteke behar bezala inprimatu. Nahi duenak hemen bila dezake: <https://www.taringa.net/posts/ciencia-educacion/19978734/La-fotografia-mas-lejana-del-planeta-Tierra.html>

3 ANDOAINGO BURUNTZA TALDEA: FEDEARI BURUZKO GOGOETA

La Salle Berrozpeko Buruntza kristau elkarteko bilera batean landutako testu batetik hainbat zertzelada:

Onartzea da fedea. Gainditzen gaituena onartzea. Bizitza ez ulertzea eta haren jabe ez izatea onartzea. Arau guztiak irakurtzen ez diren jolas neurrigabeko batean parte hartzea.

Urtean baino urtean aurrera noala, misterioak hartzen nau, zentzugabearen gainetik. Enigma handi baten zati bat naiz, baina ezkututzen zait haren sekretua.

4 HOMO SAPIENS.

(Wikipedia) Yuval Noah Harari ([hebreeraz](#):

קיריאט אתא Kiryat Ata, Israel, [1976ko otsailaren](#)

24a) israeldar historialaria da, [Jerusalemgo Unibertsitate Hebrearreko](#) Historia Saileko irakaslea eta mundu osoan salduenen artean egon den *Sapiens: A Brief History of Humankind* (euskaraz, *Sapiens: Gizateriaren historia laburra*) liburuaren egilea.

2015ean, bere bigarren liburua argitaratu zuen, oraingoan hebreeraz:

(Homo Deus: Etorkizunaren historia laburra).

Y.N. Harariren² ustez zientzia modernoak, aurreko tradizioek ez bezala, ezjakintasuna onartzeko jarrera erakutsi du. Ontzat ematen du ez dakigula dena, eta horrek zirikatzen gaitu jakintasunaren bila jo dezagun. Areago, ez kontzepturik, ez ideiarik har daiteke sakratutzat.

Iraultza zientifikoa abian jarri zuen aurkikuntza zera izan zen: gizakiek ez dakizkitez beren galdera nagusien erantzun guztiak.

² Lotura interesgarri bat: Iñaki Gabilondo kazetariak idazle horri egin zion elkarrizketa:

https://www.youtube.com/watch?v=hxuKo_VdM9o

ZAHARTZEN JAKITEA

Joxe Agustin ARRIETA

100. alea

IHINTZA aldizkariak ehun aletara iritsi da. Zenbakia borobila da, baita bere edukia eta mamia ere. Aldizkari xumea eta apala, gaurko kulturen eta gizartean zerbaiten zirrikitu argia eta garbia dakusana. Eta hau zerbait garrantzitsua da. Beldurra eta mesfidantza nagusitu zaizkigu. Batzuetan horrelako lerro-buruak irakurtzen ditut: “Zibilizazio giltzaduna eta giltzatu dugu”. Produkzioa, biltzea, pilatzea, edukitzea baitira gure gizartearen ezaugarri argienak. Zenbat eta gehiago eduki, orduan eta aberatsagoak gara. Badirudi horretatik kanpoko gogoetak eta burutazioak ez direla gure gizartean onartzen. Ongi dakigu gure gizartea, hartzearen eta biltzearen legean lehian dabilela.

Sarri askotan gure komunikabideak, eguna joan eguna etorri, eskandalu berriek eta gezur borobilak agertzen dizkigute han-hemen, legez kanpoko aberasteak salatuz. Izan ere, ongi bizitzea eta albokoari begiratu gabe ibiltzea, ongizatearen morroi bihurtu dugu. Produkzioa eta irabaztea balore nagusitzat jarri eta hartzeak, ondorio onak al dakartza?

Udaberri giroko aldizkaria ikusten dut IHINTZA. Haize freskoa eta garbia daramana, beltzaranez idatzia, baina margozko airea eta kutsua duena. Aldizkari zabala, besteei begiratzen diena eta baloreetan oinarritua dagoena. Eskola eta kultura, euskara eta eguneroko ihardun txukuna irakaskuntza arloan uztartzen dakiena.

Edukitzearen eta pilatzearen grinak, barrutik hilda gaudela erakusten du; eta, alderantziz, ematearen eta banatzearen jarrerak, barrutik bizirik gaudela erakusten. Ez dut uste ematearen pozarekin berdindu daitekeen pozik inon eta ezertan denik. Ez dut pentsatzen, eman eta galtzearen ustearekin inor geratu denik. Emateak bihotza muga berrietara zabaltzen baitu. Emateak bizirik gaudela erakusten digu. Eta bizitza da, bizi duintasunez eta justiziaz, daukagun aberastasunik handiena. Azkenean, ematean dago irabazia. Norbera emana denean, edozer ematen dugularik ere, asko ematen dugu. ZORIONAK, IHINTZA!

LAZKAOKO BENEDITARREN DOKUMENTAZIO-GUNEA

Martin Jose LASA

Aspaldiko ohiturari jarraituz Gipuzkoako Salletar Anaiok Pazko ondorengo asteazkenean, apirilaren 4an, urteroko txangoa egin genuen. Aurten Beasainen izan ginen. Eta sei Anaiak aprobetxatu genuen Lazkaoko Beneditarren dokumentazio-gunea eta monasterioiko liburutegia bisitatzeko. **Juan Jose Agirre** beneditarrak harrera beroa egin zigun.



ahalegindu zen: kartelak, eranskailuak, paskinak..., asko klandestinoak eta ilegalak.

Fundazioak, Juan Josek urteetan zehar, argitasun eta adore handiz, egindako lanaren etorkizuna ziurtatu du: ez da museo hila izango, etengabeko dokumentazio-gune bizia baizik, horretarako jasotako eraikinari esker, lan talde iraunkorrari eta sostengatzen duen ekonomiari esker.

Ikertzaile eta kontsultari ugariak idatzitako edo martxan dituzten liburu eta tesi askok kreditatzen dute gune honen filosofiaren balioa eta eragingarritasuna. Juan Mari Torrealdaik *Lazkaoko Beneditarren dokumentazio-gunea*. **Juan Jose Agirrereren artxiboa** liburuan dioen bezala, *“kontua da gaur egun Juan Josek Lazkao dokumentazio-guneen mapan kokatu duela, Euskal Herriaren historia soziopolitiko modernoa idatzi nahi duen inork ezin duela Lazkao bazter utzi”* (7. or.).

Dokumentazio-gunea

2010ean inauguratu zuten dokumentazio-gunea. Lazkaoko Beneditarren monasterioari itsatsitako eraikin berri batean dago.

Fundazio batek babesten du dokumentazio-gune hori. Gipuzkoako Foru Aldundia, Lazkaoko Udala eta Lazkaoko Beneditarrak dira Fundazioko patronatu-kide.

Gunearen helburua da Lazkaoko Beneditarrek euskal gaien inguruan osatutako bildumak eta jasotako artxiboak aberastu, ezagutzera eman eta ikerketarako tresna moderno bihurtzea.

Funts horien bilketaren hasieran Aita Juan Jose Agirre egon da eta berak eman dio jarraipena. Montserrateko monasterioan 70eko hamarkadan egindako egonaldian izan zuen inspirazio, han zeukatena eta egiten ari zirena ikusiz. Hamarkada hartan hasi zen Juan Jose bilketak egiten. Urte bitxi eta biziak haiek politikoki: Francoren azken urteak (1975ean hil zen), gero Trantsizioa, Hauteskundeak, Konstituzioa... Liburu eta aldizkarietaz aparte informazio nahiz propaganda paper pila jasotzen

Dokumentazio-guneak bi solairu ditu, behekoan langileen bulegoak eta ikertzaileen gela daude, gehi biltegia. Goikoan dokumentuen gordailua, metal-eko altzari modernoetan, eta erakusketa gela. Juan Josek astiro erakutsi zizkigun bigarren solairuko funtsak eta artxiboak eta aipatu politikoki kritikoak izan ziren uneetan —edo susmopean egondakoetan— pasatako kezka eta kinka larriak.

Euskal gaien hemeroteka erakutsi zigun, non gordetzen diren euskal kulturako aldizkari askoren bildumak, zaharrak eta gaur egunekoak, EAJren hastapeneko aldizkari gehienak, klandestinitateko zein erbesteko aldizkariak.

Segidan, mota guztietako **panfleto, pegatina, kartel pila, guztiak euskal gaien ingurukoak**, Gordailuko planero berrietan eta apaletan txukun sailkatuta. 20.000ren bat kartel eta 25.000 pegatina.

Eraikin berrian gordetzen dira **Bildumak** eta **Artxiboak** ere. **Bilduma** deitzen diote gai edo gertakari jakin baten inguruan urtetan bildu dituzten material-multzoiei. **Artxibo** izena, berriz, kanpoko batek osatu eta jasotako dokumentu-multzoiei.

90ren bat Bilduma dituzte Fundazio gunean, Artxiboak, berriz, 13 (Ikus J.M. Torrealdairen liburua 58. or.).

Monasterioko liburutegia

Ondoren Monasterioko liburutegi handia erakutsi zigun Juan Josek. Bertan 40.000 liburuki daude informatizatuta eta beste 2.000-3.000 gehiago ere izango dira. Batzuk desamortizazio aurretiko **karmeldarren liburuak** dira, beste batzuk **Beloketik ekarritakoak** (Lazkaora lehen beneditarrak Beloketik etorri ziren XX. mendearen hasieran), beste zenbait Aita Mauro Elizondok **Parisen erosiak**. Horretaz aparte, **komunitateak berak eskuratutakoak**, erosita edo dohaintza bidez. Altxor ugari dago liburuen artean, antzinatasuna nahiz edukia kontuan hartuta: 9 inkunable, "inkunable osteko" beste asko, XVI. mendekoak 402 liburu.

Euskal Biblioteka. Ahalegin handia egin zuten beneditarrek arlo honetan XX. mendearen hasieran Lazkaoko monasteriora etorri ondoren, hasiera-

hasieratik. Gaur egun 19.000 ale izango ditu euskal liburutegi honek. 1900 urte aurreko liburuek osatzen dute fondo zaharra deiturikoa. Badira hor altxor preziatuak. Juan Josek beste bi alderdi ere aipatu zizkigun: Bat, bildumak osatzen egindako ahalegin berezia. Bi, frankismo garaian diasporako euskaldunek idatzi zutena biltzen egindakoa.

Miresgarria da nola kutsatzen dizun Aita Juan Josek liburuei, euskal liburu eta dokumentuei dien maitasuna. Mirestekoa berak alor horietan egin duen eta egiten ari den lan bikaina, buru argiz egina.

Hiru orduko bisita bukatu ondoren, aipatutako **Joan Mari Torrealdaik** idatzitako liburua oparitu zigun: **Lazkaoko Beneditarren dokumentazio-gunea. Juan Jose Agirreraren artxiboa** (Lazkaoko Beneditarren Fundazioa, 2011, 60 orr.). Biziki gomendagarria Juan Jose beraren eta Dokumentazio-gunearen historia eta edukia ezagutu nahi duenarentzat.



AUTOBUSETAKO BERINAPEAK

Jon LEZAMIZ

La Sallek *App* bat sortu zuen Anaiak eskura izan zezaten eguneroko gorabeheretan, informazio artxibo bat. La Sallek oso erabilia izan zen vademecum bat argitaratu zuen aspaldian, 1711n hain zuzen. Gaztelaraz *La colección de varios trataditos* izenarekin ezagutu genuen, jatorrizko izena *Recueil de différents petits traités à l'usage des Frères des Écoles Chrétiennes* izanik. Liburuxka horretan badaude, beste gauza askoren artean, eguneroko jarduerak fede-espirituaz burutzeko Bibliatik hartutako esaldien zerrenda luzea. Adibidez, goizean jaikitzen hauxe proposatzen zen: “Esna zaituzte, lo zauden hori, jaiki hildakoen artetik eta Kristok argituko zaitu” (Ef 5,14). Egia esan, batzuk oso egokiak dira, beste batzuk, ordea, hari-haritik aterata eta, akaso, irrigarri. Baina gaur ez dut uste horrelakorik behar dugunik. Zertarako hemezortzigarren mendeko liburuxka gainean eraman, kaleetan berinape edo markesinetako iragarkien mezuak nonahi badaude?

Ni bizi naizen tokitik
Alutxeko metro



geltokiraino
gurutze-bideko
geldialdiak baino
ugariagoak dira
autobusetako

berinapeak edo markesinak.
Guztietan iragarkiak daude.
Bina iragarki, gutxienez. Asko

dira. Nahi izanez gero ere, ez diezaieket guztiei kasu egin, kontzienteki bederen. Ez naiz gauza hainbeste estimulu kudeatzeko jarraian. Ezin dut hainbeste informazio iragazi pentsamendu kontziente galbahetik.

Alutxeko metrora oinez hurbiltzen naizen bakoitzean gogoeta egiten dut sarri. Meditazioa hasi aurretik burua zeroan ipintzen dut. Gero bidean topatzen ditudan mezuei jaramon egiten diet. Ia nahigabe, automatikoki. Gaur, kasurako, propio

miatu ditut berinapeetako kartelak. Lehenengoa, etxeko atletik bost metrotara dago. Markesinako barruko aldean behatzen dut lehen iragarkia. Futboleko liga-txapelketari buruzkoa da. Bertan zera ikusten da: pizza banatzaile bat, kaskoa eta guzti, bikote forofo baten artean, hirurak pizza jaten, egunduko pasioaz telebistatik bista kendu gabe. Testuak dio “Pizza ekartzera etorri zen eta gure taldeko zaletu bilakatu zen. Hau ez da futbola. Liga da”. Nik zera erantsiko nioke: Hau bai zoramena. Ez da futbola, hau negozio hutsa da. Negozio ustela, gainera. Bart, whatsappak eurrez izan dira. Sarkasmo, trufa, iseka eta ironiaz gainezka. Nonbait Barçak pot egin zuen Erromako eskuadraren aurka, Europako txapelketatik kanpo geldituz. Deigarria gertatzen zait zenbat pertsonak sentitzen duten berealdiko poza auzokoen porrotekin! Ez, ez da futbola. Eromena da. Aurrerago jarraitzen istorio bereko beste paskin bat kausitzen dut. Bertan mutiko txinatar bat dago irribarretsu, besapean baloia daramala. Testuak dio: “Bere aitonaren izena, Feng; bere aitaren izena, Feng; bere izena, Cristiano”. Eta berriro ditzosozko errepika: “Hau ez da futbola. Liga da”. Beno, baina ez sinesteko modukoa izan arren, hau ez da horrela amaitzen. Ehun metrotara sail bereko beste kartel bat dago, non azaltzen den badaudela pertsonak partidu bat ikusteagatik bere ezkontza propiora berandu iritsiko direnak. Egiantan, hau ez da futbola. Hau zoramena da. Eta fitxajeen kontuan ez naiz sartu!

Ba, ehun metro ez dira izan aurreko markesinatik, eta beste markesina bat. Hemen iragarkia ordaintzen duena antzerki nazionala da (Centro dramático nacional). Azaltzen den irudian larruzko zapata pare bat ikusten da zola gora begira. Fin eta dotoreak, ezkongaien zapaten itxura dute. Bikote bat irudikatzen dute. Iragarkiaren testua: “Ez bazintudan ezagutu izan. Sergi Belbel. Vallé-Inclán antzokia”. Sergi Belbel da antzerkiaren zuzendaria eta testugilea. Zapata pareak Eduardo eta Elisa irudikatzen ditu. Eduardok ezbeharrez galdu omen du bere emaztea. Trauma hori gainditzeko denboraz atzera egin nahi du, ea Elisa ekidin dezakeen, ea Elisarekin topo ez egitea gertatzen ote zaion. Sergi Belbelen airean utzitako galderak hauek lirateke: patuaren menpe daude gure bizitzak ala guk geuk gertaeren bidezidorra markatzen dugu hartzen ditugun erabakien bidez? Aldez aurretik jazoeren

marra eginda dago ala harten ditugun hautapenez etorkizuna marrazten dugu?... Gogora datorkit La Salleren hasiera-memorialean idatzitakoa: "Jainkoak, zeinak dena egiten baitu jakituria eta atsegin handiz eta ez baitu gizakiaren borondatea bortxatu nahi izaten, eskolak nire bizkar har nitzan nahi izan zuen, eta hori emeki-emeki egin zuen eta ez bat-batean; honela konpromiso batek hurrengo batera eraman ninduen, hasieran nik uste ez bezala".

Beste berinape bat ibilbidean. Gosaldutako berria izan arren, afarirako deia jasotzen dut hurrengo berinapean. "McDelivery. Ding, dong... Afaria prest dago! Eska ezazu gure McDelivery-a gure App-ean". Uf, zer nazka. Gosaldutako esnea eta laboreak nahastu zaizkit bokatak duen *ketchup* saltsaz. Irudian zera ikusten da, Coca-cola botila klasikoa, geruza askotako hanburgesa pottolo bat, patata frijituak, "happy" hitz koloredun kilikagarria daraman poltsa baten ondoan. Baina gaurkoratutako bibliak dioenez, "gizakia ez da McDonaldez bakarrik bizi!". Hebrearrek Moisesen legedian hauxe idatzi zuten: "Behar gorrian jarri zintuzten, gosea pasarazi eta mana eman zizuen jaten, ez zuek, ez zuen arbasoek, ezagutzen ez zenuten janaria, zuei jakinarazteko, gizakia ez dela ogiz bakarrik bizi, baizik Jaunak esaten duenetik bizi dela" (Dt 8,3). Ahanzturaren zakar-rontzira jaurtiki dut hanburgesa.

Berrehun metroetan ez dago berinaperik, ze ondo! Baina, semaforoa pasa eta beste markesina batekin topo egin dut eta, jakina, beste iragarki bat. Kolore aniztun bolatxo betetako putzuan jauzi egiten duen neska bat ikusten da. Ondoan, "Swatch – Swiss made" erloju bat. Ene, denbora korrika eta presaka pasa da. Ea, zortziak eta laurdeneko metroa harrapatzen dudan! Izerditan iritsiko naiz. Baina ez naiz beldur. Afro itxurako orrazkera daraman emakume ederra, eskuan lurrin-flaskoa sakatzen ari dela, keinu egin dit: "Yes I Am. Le nouveau parfum. Cacharel". Burura datozkit hitz hauek: "Bai, neu naiz, ez izan beldur!". Tira ba, ea Magdalako Mariak ezagutu zuen Jesus lurrinaren usaiagatik.

Bai, kolonia eskura izan behar dugu, zeren ez baitugu txukun jokatzeko kaleetan. Garbitasuna sustatzeko asmoz Madrileko udalak kanpaina bat jarri du martxan. Horren adibidea agertzen da hurrengo markesinan. Gorotzak azaltzen dira belardi erdian eta testuak dio: "Kakak berak ere badaki hau ez dela bere tokia". Eta beste tokietan ere ikusten dut honen letania: "Kartoiak berak ere, ... zabor-poltsak berak ere,...; paperak berak ere... badaki hori ez dela bere lekua". Paulok korintoarrei zera

aldarrikatu zien: "Eskerrak ematen dizkiot Jainkoari... gure bitartez, Kristoren ezagutza usain gozoa bezala leku guztietan zabaltzen duelako. Izan ere, Kristok Jainkoari eskaintzen dion intsentsuaren usaina bezala gara salbatzen direnentzat, bizitza ematen duen bizi-usain" (2 Kor 2, 14-16).

Alutxe tren eta metro inguruan hamarnaka markesina daude. Baina, lasai. Gertu-gertu bi bakarrik daude. Azken aurreko kartelean bi nerabe zoro moduan ari dira playstation batekin pantaila baten aurrean. Eta testuak dio: "Etxea zuntzaren arabera aukeratzen dugunok gara. Bizitzeko modu berri bat da. Bizi gaitezen elkarrekin. Love. Orange dendak (1Gbps + WIFI)". Beste aldean, nerabe bikote bera zurturik ari da tableta eta mugikorrarekin. "Aldi berean bi gauza egiteko pertsonak gara" dio testuak. Etxea zuntzaren arabera aukeratzen badute, paperezko etxean biziko dira "wifirik gabe ezin bizi direnak". A, baina "Paperezko etxea" netflix-en serie bat omen da. Ez dut uste harkaitzean eraikitako etxea izango denik. Paskinean hiru txanodun azaltzen dira *hoodie* gorritz jantzita. Euren itxura ilun eta hitsa da. Propagandak dionaren arabera, "ez da inor aberastu arauak gordez". To! Hori marka etikoa! Zenbait politikoentzako master berezi baten propaganda ematen du. "Bidegabeko dirua erabiltzen fidatzekoak izan ez bazarete, nork utzi zuen esku egiazko ondasuna?" (Lk 16,11).

Eta topatzen dudan azken mezuaren testua honelakoa da: "Haur somaliarra gose izatea NORMALA DA (letra larriz). Jateko euro bat ematea ZOROENA DA. UNHCR ACNUR. Errefuxiatuen aldeko Nazio Batuetako agentzia". Azpian eta letra txikiekin honako hau irakur daiteke: "Axolagabe jardutea normala denean, zoro izatea da itxaropen bakarra". Kartelaren goiko aldean haur bat dago besoetan. Behekoan, berriz, neska boluntarioa. Honek eskuetan argazki bat dauka, non haziz betetako lapiko bat daraman beste haur bat ikusten den. Puff (lasaitasunezko hasperena), hau ikusi eta gero, berriro munduarekin adiskidetu naiz. "Benetan diotsuet: Nire seniderik txikien hauetako edozeini egin zeniotena, neuri egin zenidaten" (Mt 25,40).

Tarjeta atera dut metrora joateko. Bidai bat bakarrik geratzen zait. Bueltan kargatu beharko dut beste hamar bidaietara. Eskailera mekanikoetan gora noalarik, aurrean doan neskak trapuzko poltsan daraman testua polita da: "A veces, sí. A veces, no. A veces, siempre". Ba bai, batzuetan, bai; besteetan, ez; baina muxuka eta goxo, beti!. Hala bedi.

A DREAM

Joxe ERZIBENGOA

Beñat nire buruan neukan lagun atsegin bat zen egin nuen ametsean, eta nire irudimenean soilik bizi zen, nik hola uste dut, bederen, nahiz eta munduan zehar, batik bat Euskal Herrian, beste Beñat batzuk izango diren, baina ez nire ametsetan. Atsegina, jatorra eta zintzoa zen. Hiru adjektibo hauek gutxienez bazituen nire fantasian, nire ametsean, nire gauean. Galdetuko bazenidate zergatik deitzen zen Beñat eta ez Añaut, esate baterako, bada, ez nuke jakingo esaten, nahiz eta hamaika buelta eman nire buruari arrazoia bilatu nahiz. Nire buruan Beñat hau soilik agertu zen mendira joateko asmoarekin, eta, beharbada hau da arrazoia, berarekin maitemindu nintzen ametsetan ari nintzen bitartean. Bera pozik ari zen mendi hartako tontorrera iritsi nahiz, nahiz eta nik bezala berak ere ez zuen uste mendi hura existitzen zenik errealitatean. Baina, ametsetan bai, ametsetan bazen eta erpinera igo nahi zuen.

Kontua da ametsa ostiraleko gau batean izan nuela, eta ni lotan nengoen bezala nire ametsetako Beñat hortik barrena zebilela mendietan, garai bateko Heidi xarmangarria ez dakit nongo mendietan ibiltzen zen bezala, ama edo bere laguna, batek daki, bilatu nahiz. Hola ikusi nuen nire ametsetako jokalaria ostiraleko gau hartan ametsetan ari nintzela.

Lurralde ezezagun batean ari zen saiatzen eta, zoritxarrez saiakera guztiak ez ziren egokiak, aidanean. Aldapa bat igotzen hasten zen, baina nahiz eta gogorregia ez iruditu, ez zuen oso egokia ematen gorantz igotzeko, eta honek izutzen zuen neurri batean. Alabaina, azkenean lortu zuen aldapa hura igo eta beste aldean zer zegoen ikustea. Eraikin izugarri handi batekin egin zuen topo. Horrek aztoratu zuen espezial. Beñat ameslariak ez zuen horrelakorik aurkitzea espero harana baten itxura zuen leku orlegi hartan.

Eraikina klasikoa zen nonbait, hala erantzuten zion Beñatek leku hartan zertan zebilen galdetzen zion orori, eta arrazoi zuen. Zutabe handiko eraikina zen Erroman, Grezian, Babilonian eta Egipton aurki daitezkeen tamainako zutabeak zeuzkana, eta, erdialden, igarobide luze baten giblean, elizetara sartzeko ate klasikoak agertzen ziren, eta ateburuetan pantokrator edo Kristo-almendra bat eliza erromanikoetan agertzen dena bezalako edo

antzekoa, bederen. Beñatek, ordea, ez zuen elizara sartzeko asmorik, ez gau horretan behintzat. Beñatek izena ez zekien mendi hartako erpinera joan nahi zuen. Jakina, hara iristeko eraikin klasiko, xeblete eta ahalguztidun hartatik iragan behar zuen nahitaez. Egia da ametsak, amets guztiak, ez direla amesten diren bezalakoak, beste aurpegi batekin agertzen dira errealitateara jaisten direnean. Halere, ez zion garrantzirik eman eraikinari buelta eman eta lehen ekarritako bideari berriro ekitea erabaki zuenean. Bazekien nondik jo, hori uste zuen berak. Arrazoi zuen ametsak. Hasierako bidea hartu zuen berriz eta ardibide bezalako batean sartu zen ia nahi gabe. Hantxe aurkitu zuen marra zuri-gorria, hainbestetan erabili izan zuena mendian gora eta mendian behera ibili izan zenean errealitatean. Poztu zen. Ibilaldiaren alde desegoki guztiak baztertu zituen, eta haietaz burua libratu zuenean, gora begira jarri zen zenbat denbora beharko zuen oraindik asmatzeko, gutxi gorabehera.



Erpina ikusi zuen. Goialdeko hodei baten itzalak erpinean zegoen zutoin biribila iluntzen zuen. Zutoinaren gainean banderatxo bat ere bazen. Ametsetan soilik ikusten zituen halako banderatxoak harrizko eta porlanezko zutoin biribil eta ilunetan. Hortik atera zuen handik aurrera ez zegoela beste erpinik, beraz, hara iritsitakoan beteko zuela buruan izandako asmoa. Heldu zen. Neke-neke eginda heldu ere. Banderatxoa hartzera abiatu zenean, ordea, honek ihesari eman zion eta esku hutsik gelditu zen itzartzeko ordua zela ohartu zen unean berean. Ametsa bete zuen Beñatek, baina errealitateak ez zion ondoriorik ezagutzen utzi. Errealitatea beste kontu bat zen: banderatrixorik gabeko errealitatea, latza eta egiazkoa.

BERTSO-PAPERAK

La Salle Legazpi ZUMARRAGA - LH 5

Zumarragako bertso-paper lehiaketan saritutako bertsoak

Gaia: Amona negarrez ikusi dut gaur

Julen LESMES

1.go saria

Arratsaldean bisitatu dut
nire amona zaharra
eta sukaldean eserita
zegoen triste xamarra.
Gerturatu eta ikusi diot
begietatik negarra
masailean muxu bat emanda
irten zaio irribarra.

Eguna pasatzen du lanean,
erratza eta fregona,
eta nirekin beti jolasten
katxondeo eta broma.
Haserretzen den momentuetan
da pixkatxo bat mandona
baina hala eta guztiz ere
asko maite dut amona.



Oier AGIRREZABAL

Aipamen berezia

Amonaren etxera heldu naiz
arratsaldeko bostetan.
Negarrez aurkitu dut amona
ez dakit zer duen benetan.
Oheratu naiz preokupatuta
goizeko ordubietan,
gehiegi kostatu zait jartzea
bere sentikizunetan
Ohetik jaikitzean joan naiz
nire amona ikustera.
Irribarre bat egin dit eta
jun naiz zer dun galdetzera.
–Galdu dut Asensio aitona
diamantezko pultsera!
–Ez da izango sofa azpian
dagoena buruz behera?



Amona triste dago,
zahartzen ari da,
denbora pasatzen du
atzera begira

Baina tokatu zaio
orain loteria
eta alaitu zaio
horrekin begia.

Diru mordoak dauka
ta ez du gastatu nahi.
–Denerako duzu ta
gasta zazu lasai!

Amonak paga igotzea
hala ere ez uste.
Zaharrek euroak ondo
jasotzen dituzte.



Miren Karmele GALDONA
Aipamen berezia

Tristura sentitu dut
amona ikustean,
negarrez hasi da ta
esan didanean:

Txakurra hil zaiola
eta dauka pena,
lau urte zeukan eta
Lagun bere izena.

Nik esan diot –Lasai,
amona mesedez!
Aurkitu behar dugu
beste bat bere ordeztu

Eta aurkitu artean
txakur dotorea,
denbora baterako
zuk hartu nerea.



1937ko apirilaren 26a

Uxue GARZIA

La Salle BEASAIN - DBH 3

Gaur osteguna da eta nola ez, astero bezala, amama Asunekin joan naiz meriendatzera. Baina gaur, bere begiradan tristura sumatzen dut. Egunean zehar gertatutako bizipenei buruz hitz egiten hasi naiz, baina ala eta guztiz ere kasurik egiten ez zidala konturatu eta galdezka hasi naiz.

–Zer duzu amama? –Galdetzearekin batera malkoz bete dira bere begi urdinak.

–Ba al dakizu zein egun den gaur Nikolas?

–Apirilaren 26a dela uste dut, zergatik?

–Orain dela 50 urte gure herrian zer gertatu zen badakizu, baina nik nola bizi izan nuen jakiteko garaia dela uste dut.

Hamahiru urte nituen nik Gernikako bonbardaketa gertatu zenean. Laino beltz batek estali zuen herria egun hartan. Bat-batean zeru beltz hura hegazkin erraldoiez josten hasi zen, baina ez, ez ziren bidaiatzeko erabiltzen ziren hegazkin horiek ez, bertan gizon handi, indartsu, altu eta serioak ikusten ziren leiho txiki haietatik begira. Momentu hartan, kalean geunden pertsonak zerura begira jarri ginen, etxean zeudenak, leihoetatik zerura begira jarri ziren eta dendetan zeudenak ere, zerura begira. Herri guztia zerura begira geunden eta zegoena ikusita, bagenekien ez zela ezer onik gertatuko.

Ezer jakin gabe, hegazkin haietatik, gauza borobil handiak erortzen hasi ziren, eta ez ziren pilotak ez, bonbak baizik, bonbardaketa hasi zen. Segundo bakar batean gauzak alda daitezkeela esan ohi da, eta egia da. Etxeak, lantegiak, dendak, plazak eta kaleak sutan zeuden, eraikinak erabat hondatuak.

Sekulako zalaparta zegoen herrian. Jendea builaka eta korrika zihoan mendialdera, baina ni, herrian gelditu nintzen, bakarrik, minez eta negarrez. Ez nekien non zeuden nire senideak, ezta herritarrak ere. Bi hiru orduko gauza izan zen, baina nik, eta ziur asko denek, egunak eta egunak igaro balira bezala sentitu zuten une hura.

Hegazkin guztiak joan bezain laster, herrian lasaitasun puntu bat sentitu zen, baina ez asko. Kaleak, etxeak, eraikinak, lantegiak, plazak eta dendak sutan eta hondatuak zeuden erabat. Mendian zeudenak, bertatik jaisten hasi eta

familiartekoen bila hasi ziren. Nire familiartekoak bilatzen saiatu nintzen, baina bakarrik, nire ama eta aita aurkitu ahal izan nituen. Nire anaia falta zen. Kale eta leku guztietan bilatzen hasi ginen, eta bat-batean, lurrean aurkitu genuen, zauriz josia. Ahal izan genuen modura joan ginen korrika bere bila, baina beranduegi zen.

–Ez nekien nik hori guztia bizi izan zenuenik amama.

Lepotik heldu, besarkada potolo bat eman eta buelta txiki bat ematera joan gara zuhaitzeraino, berari hainbeste gustatzen zaion bezala. Hemendik aurrera, niri ere ez zait inoiz ahaztuko apirilaren 26a. Nola ahaztu... gogoan dugunak etorkizuna ereiten baitu. Bakez. Hala bedi.



OROITZAPEN AHAZTEZINA

Ane RUIZ

La Salle BEASAIN - DBH 3

Lurralde bakartietan etsai zaitut,
bihotzen hezitzaile zara
laztana,
mendi gailurretik entzun gabezia
maitea,
zugandik daukat gaur joan beharra.

Oraindik oroitzen naiz
zure erokeria galduaz

ahaztu zuri
lotzen nauen oroitzapena
ahaztu
zure berezko usaina
ahaztu
zure melodia
ahaztu
iragana,

PIZTU ETORKIZUNA



Desira...

Zu ikusteko egonezina,
irrika,
zure ezpainetako margotan
itotzea,
ilusioa,
egun ilunetan nire argia,

Lasaitasuna...

Zure taupadak gertu sentitzea

Nire amets guztien errege,
eguneroko nahien laguntzaile,
bizipen guztien gako,
aurrera egin ezin
tristezia malko gardenetan
ezkutatuz,
zure maitasuna
sumatuz,

BAZOAZ.

Agur...

ESPERIENTZIA BIKAINA

Andoni MUJKA

La Salle Berrozpe ANDOAIN -GMHK 1

Doinua: *ETA-ren su-etenetik*

Bigarren batxilergoan
heldu nintzen Andoaina,
nola beste hiru lagun
nerekin nitun engaina,
bertan beste hainbat lagun
ere egin alajaina.
Gelari eman genion
giro on baten usaina,
azkenerako lan pixkat
ere egin genuen baina
guretzako izandu zan
ikasturte bat bikaina
ikasten pasatu degun
urterik onena adina.

Eta pentsatzen jarrita
nere etorkizunagan
iaz nola Andoainen
urte ona nun iragan,
mekanizado modulo
batez hasiz abiadan
espektatiba altua
baitauka azken boladan.
Gogotsu hasiak ginen
guztiak arrapalada,
nere bidea egitea
nola garrantzitsua dan
nik ere nere bititza
mekanizatu dezadan.

Noizbait ikastolatikan egin beharko det alde, bai hemengo irakasle eta hemengo lan talde. Enpresek egin ezkeru apustu gazteen alde nahiz eta hemen bizitza inork eztaukan debalde ni naiz ikasketak utzi ta lanean hasi zale. Berriz etorri behar balitz ni pozik nentorke, bale baina etortzen ez banaiz ongi dijoan seinale.



ENGRAXI

La Salle ZARAUTZ

Ikasturte honetan, aurrekoetan bezala, euskararen egunaren harira Zarauzko La Salle Ikastetxeko ikastalde guztien artean ipuin bat osatu genuen, eta abenduaren 3an guztiok elkartu eta denon aurrean irakurri. Hauxe duzue.



Urduri dago Engraxi txerria. Oraingoan San Martini ihes egin dio, baina Anastasio oraindik ere bere bila etor daitekeela pentsatze hutsak urduri jartzen du. Santotomasak laster dira, eta txerri batentzat egun horrek beti du bere arriskua.

Ikuiluan ezkutatzea erabaki du, eta Rosi behiak eta Txuri zaldiak bere nagusiari tranpa bat jartzen lagunduko diotela agindu diote. Berriketan ari direla, zalaparta ikaragarria sortu da ikuiluan, Anastasio bertan sartu denean.

Zer du halako ordu arrarotan ikuilura bisitan etortzeko? Engraxiren bila datorrela pentsatu dute guztiok, baina... Ez... Rosi jeztera etorri da, itxuraz laster Zarauzko La Sallen antolatzeakoak diren gazta lehiaketan parte hartzeko asmoz dabil gure baserritarra.

Sustoa pasa eta, gauean, ikuiluko abere guztiok bilera egin dute, zer egin erabakia azkar hartu behar dutelako: Ezin egunak beldurrak airean eman. Txurik proposatutako ideia bikaina dela iritzi diote guztiok: Engraxi mozorrotu behar dute. Baina... Engraxi zerrikote handia da, eta bera bezain handia izango den mozorroa behar dutenez, elefantez janzteia erabaki dute.

Biharamunean, Anastasiok ezin du begien aurrean duena ulertu; zur eta lur gelditu da, bere ikuiluan elefante bat topatu duenean. Artean, Engraxik badaki kurrin-kurrin eginez gero Anastasiok erraz asko antzemango duela, eta elefantearen soinuak imitatzen saiatu da. Hain gaizki! Ikuiluko animaliek barrea disimulatzen nahikoa lan!

Anastasiok, zer egin jakin ez eta, ezusteko elefante hori zoologikora eramatea erabaki du. Eta bertan hasiko dira Engraxi txerriarentzat benetako arazoak: Elefante guztiek aurpegi arraroz begiratzen diote, eta Engraxik berak ez daki haiekin nola komunikatu. Hori gutxi ez eta, euria hasi duenean, bere mozorroa puskatzen hasi zaio, eta grix koloreko zena arrosa bilakatu da.

Engraxi dardarka hasi da, eta Peru zaintzailea zer gertatzen ote zaion galdetzeraz gerturatu zaio. Engraxik, kirioak dantzan, bere urduritasunari ezin eutsi eta kaka egin du... Peruk berehala antzeman du kaka hori ez dela elefante batena, eta Anastasiori telefonoz dei egitea erabaki du.

–Aizu, Anastasio! Ekarri zenidan elefantea arrosa kolorekoa da, eta kurrinka egiten du. Elefantea baino, txerria dela esango nuke!

–Ziria sartu nahian ala? Nik txerri bakarra dut, Engraxi, eta ikuiluan dago beste animaliekin batera.

Anastasio berehala joan da ikuilura, eta bazter guztiak miatu ondoren, Engraxi desagertu dela konturatu da. Azkar batean hartu du zoologikorako bidea, noski!

Bitartean, gure Engraxik zoologikotik ihes egiteko modua topatu du. Baina, halako batean, Matilda sugea agertu zaio bidera, erabat zorabiatuta, kumeak izateko puntuan baitago... eta bere egonezin horretan, sabeleko festa arrautzak krixkatze bilakatzen zaion unean, Engraxiri koska egin dio, eta gure txerriak konortea galdu du. Sugekume jaioberriak gose dira, eta Engraxi, hain da ederra!

Hirugiharra lehenik, saiheskiak ondoren, urdaila azkenik... Konortea berreskuratu duenean, Engraxiren aieneak inguru zabalean entzuten dira, baina... Beranduegi. Anastasiok halako egoera tamalgarrian topatu du bere txerria, eta al baitariarenera eraman badu ere, ezinezkoa dela aitortu dio honek. Gure Engraxi ez da Santotomasetara iritsiko.

Baina... gure Engraxiren istorioa ez da honela amaituko, izan lasai!

Txerri zintzoa izan denez, zeruetarako bidea hartuko du, eta San Pedrori sartzen utziko ote dion galdetu dionean... zeruetako zaintzaileak, mozorrotzea gustuko duela gogoratuz, baietz, zeruan badela berarentzako tokirik, baina bere arimak, bere mamuak alegia, inauterietan Anastasioren baserrira itzuli beharko duela esan dio.

Eta, hala, heldu dira inauteriak.

Hori zalaparta!

Txuri eta Rosik ezin dute Engraxi haiekin dagoela sinetsi, eta gehiagotan elkarrekin egotea gustatuko litzaiekeenez, San Pedrori inauterietan bakarrik ez, Halloween gauean ere baserrira etortzeko baimena eskatu beharko liokeela esan diote. San Pedrok jatorra ematen du, eta baimena emango dio, ziur!

Engraxik bere gora-behera guztiak kontatu eta, zeruetako lasaitasuna gehiegizkoa dela pentsatuta, Halloween gauerako parranda ederra prestatu nahi izan du bere lagunekin. Anastasiori susto ederra emango diote, bai horixe! Ikuiluko animalia denak jo eta ke jardun dira Santu guztien bezperara arte.

Abenduaren lehen. Gauerdia baino lehen, Anastasiok baserriko ikuiluan zarata arraroak entzun ditu. Bertaratu, eta elefante mordoxka topatu du bertan. Bai, bai! Elefante mordoxka! Begiak igurtzi, berriz begiratu, eta.... Baietz! Elefanteak direla!

Tira! Gaueko afariak kalte egin diola pentsatu eta bihar bertan bere betiko animaliak topatuko dituela pentsatu, eta badoa berriz ohera.

Kaka! Planak kale egin die! Gure Anastasio ez da batere larritu, eta ezin haren lepotik barre egin... Baina, gure ikuiluko lagunak praktikoak dira oso, eta guztiak mozorrotuta daudela aprobeztatuz, mozorro festa itzela antolatu dute minutu gutxian.

Ohetik, Anastasiok sekulako burrunba entzun du: musika, zarata eta iskanbila. Baina, nor ote dabil bere baserrian? Zer ari da gertatzen gaur gauean?

Berriz ere altxatu, eta ikuilura gerturatu da. Atea zabaltzean, filmetan bezala, dena bat-batean mutu gelditu dela dirudi, denak geldi, zer gertatu zain. Anastasioren erreakzioaren zain dira denak, batzuk irribarre maltzurrez, elkarri begira.

Anastasio aho bete hortz gelditu da, baina ez da batere izutu. Alderantziz. Gaua begirik bildu ezinik emango duela aurreikusita, eta festa giroa ikaragarri gustatzen zaionez, musikaren doinu atseginarekin batera gogo biziz dantzan hasi da gure gizona. Eta,



halako batean, mutu eta geldi-geldi ziren animalia denak bere inguruan dantzan hasi dira, salto eta brinko, Anastasioren mugimendu xebreak imitatuz. Hori ezustekoa!

Engraxi, baina, ez dago batere pozik. Bere planak, orain ere, porrot egin du, eta Anastasiok ez du mendeku gisa nahi duen sustorik jaso. Zerbait egin behar du kosta ala kosta, eta pentsatu eta pentsatu, eta ezer bururatzen ez zaionez, amorratuta, Anastasio zangotrabatu du, eta gaixoa lurrera erori da. Buruaz lurra jo, eta konortea galdu du... eta, esnatzean, bere inguruan txistorrak eta txistorrak, txistorrak besterik ez ditu ikusten! Baserriaren inguruan txistorra zaparrada, ai ene!

Tira! Kolpeak sortutako lozorrotik bene-benetan esnatzean, aurreko guztia paranoia hutsa izan dela konturatu da: ikuiluan ez da festarik, ez dago mozorrotutako animaliarik... Egun berriarekin batera, gauzak bere onera itzuli direla dirudi.

Anastasiok, oraindik bere paranoia xeblea burutik kendu ezinik, merkatuan Fernando, bere

eskolako lagun zaharra topatu du, eta guztia kontatu dio... a zer barreak egin dituztenak.

Eta... gure Engraxi? Triste dago. Berak sustoa eman nahi zion Anastasiori, baina ez zuen hark minik hartzerik nahi... Anastasio ere triste dabil, bere txerria galdu baitu... Hau bai istorio aldrebesa: mozorrotutako animaliak, elefanteak, ikuiluko festa... eta gure ipuinak amaiera kaxkarra izan behar ote du? Ez horixe! Datorren urtera arte ez dugu ipuin berririk, eta festa giroa mantentzea komeni, ez al zaizue iruditzen?

San Pedrokekin elkarrizketa luzea izan du Engraxik, berak oraindik zeruan lekurik ez duela behar esan dio... Eta San Pedrori ez zaio gaizki iruditu: Engraxik berriz ikuilura itzultzeko baimena eskatu, eta baiezkoa jaso du. Anastasiok, berriz, Engraxi txorixo eta lukainak baino gehiago dela ulertu du, eta Santotomasetan ikuiluan txerri txikiak izatea zoragarria litzatekeela pentsatu du. Ikuiluko Rosi eta Txuri ikaragarri pozik daude, animalien arteko adiskidetasunak Engraxi lagunartera itzuli duelako. Aurten ez da Engraxirentzako Santotomasik.



Nire talaiatik

“ESPERANTZARI”

Juan Luis URMENETA

MARTXOAK 19 – “*Blowin in the wind*”

Goizean leihoa ireki dudanean haize fresko batek zekarren lurrin gozoak esna arazteaz gain ilusio puntu bat ere jarri dio egun berriari. *Blowin in the wind* heldu zait IHINTZA hau ehungarren zenbakira heltzear den berria eta gauza dadin nire harri-koskorra eskatuz. Nola ez hasiera-hasierakoak bizirik badiraute oraindik gogoan! Garai hartako –34 urte– Anaia euskaldun berriei idazteko plaza txokoa eskaintzeko sortu zen eta, bakarrik egon ez zitezten, baita euskaldun zaharrei ere. Bete du bere zeregina eta betetzen ari da izan ere zoko horretara lagun asko biltzen joan da. Bizirik dagoenaren haize freskoak piztu dit eguna Gandiagak “Esperantzari” eginiko poemak egindako hasierako galderari gaur baiezko erantzuna atera baitzait.


APIRILAK 7 – Joan B. La Sallekoa.

EHUN ez da ibilbidea neurtzen zenbakia soilik lanaren ezaugarria ere bada. IHINTZA eskuz EHUNDutako oihala da han-hemenka harri bitxiz apaindua. Ongi trebatutako eskuz batzuetan edo trebatzen ari direnenaz besteetan, esku nekatuez eta energiaz beterikoez, erraz idazten dutenenez edo militantziagatik izerditan amaitzen dutenenez ... Ez da, seguruenik, hari dotorez atera den oihal ikusgarria jai egunetan harro puntu batez erakusten diren horietakoa, baina bai bere apaltasunean eta apaltasunetik harro egoteko modukoa.

Pilareko Ama Birjinari jantzia aldatzen omen diote noizean behin, ospatzen den egunaren arabera. Euskararekin antzeko zerbait egingo balitz ehuntzen joan garen IHINTZAz jantzita agertuko beharko luke. Ez noski jai handietan baina, hain harroak ez baikara. Bai ordea, besterik ez bada ere, gaueko ordu batzuetan jasaten ari den hotza zertxobait arintzeko egina baita.

APIRILAK 21 – Ehun eta bat

Badirudi *bizitza* 100 zenbakira heltzen denean egin beharrekoak egintzat jotzen ditugula. Lehendabiziko oroitzapenak zilarrez jantzen ditugu, urrez hurrengoak, diamantez ... eta ehunera iristean badirudi ez daukagula bitxirik. Bihozminez jantzita etorriko zaizkigu behar bada, orduan ohartzen baikara gure sorkariak gu baino luzaroago irauten dutela. Baina 101 zenbakiak biziberritu egiten gaitu berriro atzera begira jarri beharrean aurrera begira jartzen gaituelako. Biak esperientziak uztar daitezke IHINTZA honetan ehungarren zenbakia izanik argitaratzen den ehun eta batgarren alea baita. Izan ere, aurretik 0 zenbakia izan zuen, 1984ko martxoan argitaratua. Hemen duzuen. Topa dagigun luzaroan bizi dadin!





La  **Salle**

GURE HEZKUNTZA SAREA EUSKAL HERRIAN

Andoain - Beasain - Donostia La Salle - Donostia San Luis
Eibar Azitain - Eibar Isasi - Irungo La Salle - Zarautz - Zumarraga
Bilbo La Salle - Bilbo Elkarbanatuz - Sestao Andra Mari - Sestao Artizar